

ARKITEKTURA BERDEA guztiontzat!

Gure eskolak, guraso elkarteak bultzatuta eta eskolako OOGak onartuta, patioan jolasteko egitura bizi bat, landatu eta ehunduko dute martxoaren 6an, LHko 6.mailako ikasle taldearekin eta **Garaion elkarteko** kideen laguntzarekin.

Otarregintza Garaikidea edo Arkitektura berde izenarekin ezaguna den ekimenarekin bat egin du eta eskolako patioaren naturgunean zume-biziko jolasteko egitura bat sortuko dute. Europa iparraldeko herri eta eskoletan bizi-birik dagoen ekimena da.

Zergatik eraiki jolas parke gogor eta hotzak, burdin edo plastikoekin, jasangarriak ez diren elementuekin, natur elementuekin eta partehartzea bultzatuz sortu ahal ditugunean?

Eskoletako patioen berregituratzea, eta eskola barruko espazioen berritze lanak pil-pilean dihardute Euskal Herriko eskola askotan, eta eztabaida zabala dago Europa osoan.

Arkitektura berdeak alternatiba bikaina eskaintzen digu metal eta plastikozko parke horiei. Eta aldi berean, eraikuntza modu horrek, zeharkako helburu ugari lantzen ditu: sormenaren garapena, lankidetzatza, naturarekiko maitasuna eta errespetua, nola bizidun guztiok dugun indar eta ahultasunaz jabetzea. Gainera guztiz aproposa da urtaro guztiak gertutik bizitzeko eta landatutako egituren zaintzaren erantzukizuna barneratzeko.

Mariturriko guraso elkarteak, **Garaion Naturartea** elkarteari zume biziko egitura bat sortzeko enkargua egin dio, LHko 6.mailako ikasleen partehartzea sustatuz. Egituraren diseinua erabakitzeko 17 ikasleek, Garaioneko lantaldearekin batera tailer bat burutu dute eta bertan zer, noiz eta nola eraikiko den erabaki da. Egun bakarrean burutuko da eraikuntza eta eskolako komunitateari opari gisa utziko diote datorren urtean institutura doazen gazteak.

11 eta 12 urte bitarteko ikasleak dira, eta aurtengo negu hotzeko egun oso bat eraikitzen eta lanean pasatzeko prest agertu dira.

Noiz

2018ko martxoaren 6an landatu eta sortuko dugu egitura

Non

Mariturri eskolako eremu berdean

Ordutegia

9etatik – 13:30etara eta 14:30etatik 17:30etara